

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

“GABONETAKO MERKATU HANDIAREN” INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, "Gabonetako Merkatu Handiari" buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urtarrilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ernesto Gasco zinegotzi ordezkariak Donostian “Gabonetako Merkatu Handi” bat egingo zela iragarri zuen abendu hasieran; Europako beste hiriburu batzuen antzera, eta egia esan, merkatua “saltzeko”, ez zion inongo mugarik jarri adjektibo kalifikatzaileen erabilerari: adjektibo guztiak, positiboak, noski. Komunikabideek donostiarrei “merkatu handia” horrela helarazi zieten.

“Gabonetako Merkatu Handia” ireki zenean, donostiarrak ilusioz gainezka ikustera joan ziren, eta orduan errealitatea beste bat zela konturatu ziren. Batek baino gehiagok "urte hasieran 2016ko inaugurazioa zela-eta, ikuskizuna ikustera etorri nintzen hona eta ia leku berean ederki bukatu dugu urtea... Zubien errua izango omen da" adierazi zuen.

Udal Gobernuak, jakinda huts nabarmena egin zuela, denboraren premia argudiatu du, aitzakia moduan. Nahiz eta, orain arte behintzat, gabonen datak berberak izan diren urtero. Gainera, artisauen merkatua, beti bezala, Koldo Mitxelena eraikuntzaren aurrean egin da. Beraz “Gabonetako Merkatu Handiaren” parte ez da izan. Donostiako merkatari askok ere ez zuten merkatuaren berri.

Zinegotzi ordezkariak merkatari elkarteekin hitz egin zuela, baina ez zutela ezer gauzatu adierazi zuen.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, datorren urteko Gabonetako Merkatu Handia aurrera eramatekotan, bertako merkatariekin eta Koldo Mitxelenaren aurrean jarri ohi den artisau feriarekin akordia itxi dezala, haiek ere gabonetako merkatuaren parte izan daitezen.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, aurreko puntuan aipatutako eragileekin akordioa itxiko ez balu, haien eginkizuna susta dezala.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia